



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



PRENTSARAKO OHARRA

EMAKUMEEK SORMEN-KUDEAKETAREN ETA KOMUNIKAZINOAREN GANEAN DAUKIEN IKUSPEGIAK ARRAKASTAZ ITXI DITU “EMAKUMEA BIZKAIAN” JARDUNALDIAK

- **“EMAKUMEA, SORMEN-KUDEAKETAN ETA KOMUNIKAZIOAN”,** izenburuagaz amaitu da gaur, azkenengo mahai inguruagaz, **“EMAKUMEA BIZKAIAN. NOLAKOAK GARA, NOLA IKUSTEN GAITUZTE”** jardunaldien II. edizinoa. Bizkaiko Batzar Nagusietako Bilboko egoitzan gaur arratsaldean egin dan hitzorduan honeek hartu dabe parte: Andoni Aldekoa Euskalduna Jauregiaren zuzendari orokorrak, Verónica Elorza Euskadiko Lurralde Zentroaren (TVE) erredaktore eta zuzendari ohiak eta Begoña Marañón SER kateko Euskadiko Eskualdeko zuzendariak.


(Bilbon, 2020ko zezeilaren 25ean). Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen Bizkaiko Batzordeak gaur arratsaldean itxi ditue zezeileko martitzen guztietan Bizkaiko emakumeek XXI. mende honetan aurrean dituan jakin-minen, rolen eta erronken ganeko ahots eta eretxi barriak aurkeztu dituan **“EMAKUMEA BIZKAIAN. NOLAKOAK GARA, NOLA IKUSTEN GAITUZTE”** jardunaldiak.

Gaur egin dan **“EMAKUMEA, SORMEN-KUDEAKETAN ETA KOMUNIKAZIOAN”** topaketea Begoña Cava Historian doktoreak (Deustuko Unibersidadea) moderatu dau, eta gune publikoen kudeaketa profesionalean eta komunikabide garrantzitsuen zuzendaritzan ibilbide luzea eta emonkorra daukien personek hartu dabe parte. Gaur, honeen esperientziak ezagutu ahal izan doguz: Andoni Aldekoa Euskalduna Jauregiaren zuzendari orokorra, Verónica Elorza Euskadiko Lurralde Zentroaren (TVE) erredaktore eta zuzendari ohiak eta Begoña Marañón SER kateko Euskadiko Eskualdeko zuzendaria. Azkenean, Miren Arzalluz, Pariseko Modaren Museoko zuzendaria, ezin izan da etorri, azken orduko ezusteko bat dala eta.

Topaketea emakumeen ibilbide garrantzitsu batzuek markau dabe, oraingo honetan komunikabideen munduan. Izan be, Verónica Elorzak eta Begoña Marañónek, orain denpora gitxi arte erabagiak hartzen ziren lekuetan gizonak baino ez egozan sektorean Euskadiko emakumeek egin daben burrukea erakusten dabe. TVE eta Euskadiko SER Katea komunikabide garrantzitsuak zuzentzera heltzeko egin behar izan daben bidea anekdotaz, oztopoz eta erronkaz beteta egon da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



Horren ganean asko daki, baita be, Andoni Aldekoa kazetariak, mahaian egon dan gizon bakarrak. Irakurketa kritikoa egin dau komunikazino aholkulari, kazetari eta Politika eta Hauteskunde Komunikazinoko aditu moduan izan dauen ibilbide profesioaletik. Orain urtebetetik Euskalduna Jauregiaren etorkizuna definiduten dabil beharrean.

Laburbilduta, Emakumearen Nazinoarteko Egunaren (martiaren 8a) aurretik egin diran jardunaldiek, emakumeek hainbat arlotan, kirolean, barrikuntzan, teknologian, sare sozialetan edo kudeaketa sortzailean, egin daben beharraren proiektinoaz aztertu gura izan dabe, gai bakotxa emakumeen eta gizonen eretxiakaz jorratuta. Zezeilaren 4an hasi ziran berbaldiek, euren eguneroko jarduna erantzukizuneko lanpostuetan gauzatzen daben emakumeen presentzia izan dabe.


BALANTZE POSITIBOA

Jardunaldien bigarren edizinoaren balantzea oso positiboa da, parte hartu dabenen kalidadeari ikus-entzuleen aldetik jaso daben arrakasta handia gehitu behar jakolako. Bizkaiko Batzarren Bilboko egoitzaren Berbaldien Aretoa ia beteta egon da lau mahai-inguruetan.

Gaur arratsaldean, Izarra Aizpurua eta Naiara Mantzizidor bizkaitarren musikea entzun ostean, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak eta Lorenzo Goikoetxea Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kideak, amaierea emon deutse jardunaldiei, eta biak be, datorren urtean emakumeen beste ahots batzuk topalekua eukitearen aldeko eretxia agertu dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



NOTA DE PRENSA

UNA MIRADA FEMENINA SOBRE GESTIÓN CREATIVA Y COMUNICACIÓN CIERRA CON ÉXITO LAS JORNADAS “LAS MUJERES EN BIZKAIA”

- Bajo el título “*LAS MUJERES EN LA GESTIÓN CREATIVA Y LA COMUNICACIÓN*”, ha concluido hoy, con una última mesa redonda, la II edición de las jornadas “*LAS MUJERES EN BIZKAIA. CÓMO SOMOS, CÓMO SE NOS VE*”. En la cita de esta tarde, en la sede bilbaína de las Juntas Generales de Bizkaia, han participado Andoni Aldekoa, Director General del Palacio Euskalduna de Bilbao; Verónica Elorza, redactora y antigua Directora del centro territorial de TVE (Euskadi); y Begoña Marañón, Directora regional de la cadena SER (Euskadi).


(Bilbao, a 25 de febrero de 2020). Las Juntas Generales de Bizkaia y la Comisión de Bizkaia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País han cerrado hoy las jornadas “*LAS MUJERES EN BIZKAIA. CÓMO SOMOS, CÓMO SE NOS VE*”, que durante todos los martes de febrero han aportado nuevas voces y discursos sobre los planteamientos, las inquietudes, los roles y los retos a los que se enfrenta la mujer vizcaína en este siglo XXI.

El encuentro de hoy titulado “*LAS MUJERES EN LA GESTIÓN CREATIVA Y LA COMUNICACIÓN*”, moderado por Begoña Cava, Doctora en Historia (Univ. Deusto), ha contado con la participación de personas que cuentan con un largo y exitoso bagaje en la gestión profesional de espacios públicos y en la dirección de importantes medios de comunicación. Hoy hemos conocido las experiencias de Andoni Aldekoa, Director General del Palacio Euskalduna de Bilbao; Verónica Elorza, redactora y antigua Directora del centro territorial de TVE (Euskadi); y Begoña Marañón, Directora regional de la cadena SER (Euskadi). Finalmente, Miren Arzallus, Directora del Palais Galliera - Museo de la Moda de París, no ha podido acudir a la cita por un imprevisto de última hora.

El encuentro ha estado marcado por importantes trayectorias femeninas en el mundo de los medios de comunicación, ya que Verónica Elorza y Begoña Marañón, representan la lucha de las vascas en un sector que, hasta no hace mucho, estaba copado en sus esferas decisorias casi exclusivamente por hombres. Sus caminos para llegar a dirigir dos medios tan carismáticos como TVE y Cadena SER Euskadi, ha estado plagado de anécdotas,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



obstáculos y retos.

Algo de lo que sabe mucho el también periodista, y único hombre en la mesa, Andoni Aldekoa, quien ha hecho una lectura crítica desde su trayectoria profesional como asesor de comunicación, y experto en Comunicación Política y Electoral, y que desde hace un año, trabaja para definir el futuro del Palacio Euskalduna.

En resumen, estas jornadas, antesala de la celebración del Día Internacional de la Mujer (8 de marzo), han analizado la proyección de la labor realizada por las mujeres en áreas tan dispares como el deporte, la innovación, la tecnología, las redes sociales o la gestión creativa, abordando cada una de las cuestiones con opiniones tanto femeninas como masculinas. Las charlas, que comenzaron el pasado 4 de febrero, han contando con la presencia de mujeres que en su día a día desarrollan su actividad profesional en puestos de responsabilidad.

BALANCE POSITIVO

El balance de esta segunda edición de las jornadas es muy positivo ya que a la calidad del cartel de las intervinientes, se le ha unido un gran éxito de público. La Sala de Conferencias de la sede bilbaína del Parlamento de Bizkaia ha estado prácticamente llena durante las cuatro mesas redondas.

Esta tarde, tras oír la música de las bizkainas Izarra Aizpurua y Naiara Mantzidor, la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, y el miembro de Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, Lorenzo Goikoetxea, han dado por finalizadas las jornadas, postulándose ambos por que nuevas voces femeninas tengan un lugar de encuentro el año próximo.